EUROESKUALDEKO «MUGAZ GAINDIKO UNEAK» ARGAZKI LEHIAKETA

LEGE-OINARRIAK

01 | LURRALDEAK ETA LEHIAKETAREN IZAERA 2
02 | IRAUPENA 2
03 | PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA LEHIAKETAREN MEKANIKA 2
04 | ARGAZKIEN ERABILERA 3
05 | LEHIAKETAREN BALDINTZAK ETA SARIAK 3
06 | MUGAK 4
07 | IRUZKINAK ETA IRITZIAK 4
08 | DATU PERTSONALEN BABESA 4
09 | ALDAKETAK 6
10 | SARIEN BANAKETA 6
11 | AUZIAK 6

Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdea Lurralde Lankidetzako elkarte europarra da, 2011ko abenduaren 12an sortua, mugaz gaindiko eta Euroeskualdeko lurraldeko garapen ekonomiko, sozial eta kulturala bultzatzeko eta aldi berean barne-trukeak sustatzeko. Euroeskualdeko argazki lehiaketaren xedea Akitania-Berria, Euskadi eta Nafarroako lurraldeetako ondare kultural eta paisajistikoaren aberastasuna balioztatzea da.

01 | LURRALDEAK ETA LEHIAKETAREN IZAERA

Lehiaketa "Mugaz gaindiko uneak" deitzen da eta Euroeskualdeko hiru lurraldeetan garatuko da: Akitania-Berria, Euskadi eta Nafarroa. Partaidetza bakarrik Internet bidez burutuko da erakundearen webgune ofizialaren bitartez (https://www.euroregion-naen.eu) eta sare sozialen bidez zabalduko da: Instagram, Facebook eta LinkedIn.

Lehiaketa doakoa da, beraz parte hartzeko ez da produkturik erosi beharko ezta kuota edo kantitate gehigarririk ordaindu beharko sariak lortzeko.

02 | IRAUPENA

Lehiaketa 2025eko ABENDUAREN 01an hasiko da eta 2025eko ABENDUAREN 17an amaituko da, 12:00etan. Euroeskualdeak ez du ardurarik onartzen epez kanpo (goiz zein berandu) jasotako hautagaitzei dagokienez eta sarrera horiek ez dira kontuan hartuko lehiaketan. Edozein arrazoi dela eta lehiaketa atzeratzeko eta/edo aldatzeko beharra izanez gero, NAEN Euroeskualdearen sare sozialen bitartez jakinaraziko da.

03 | PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA LEHIAKETAREN MEKANIKA

Lehen aipatutako epean zehar Akitania-Berria, Euskadi eta Nafarroako biztanle diren haur eta heldu guztiek hartu ahalko dute parte. 18 urte baino gutxiagoko partaideek tutore legalaren baimena aurkeztu beharko dute (lehiaketaren dokumentazioan bete beharko da ziurtagiria).

Ezingo dute lehiaketan parte hartu NAEN Euroeskualdeko langileek ezta lehiaketaren sorkuntzan eta/edo garapenean zuzenean edo zeharka parte hartu duten pertsonek ezta horien lehen mailako familiartekoek.

Ez dira onartzen gehiegizko eraldaketa digitalak, hala nola argazkiko elementuen ordezkapena, eransketa edo ezabaketa. Ez dira onartuko ere adimen artifizialaren bitartez sortutako edo eraldatutako irudiak. Lehiaketan parte hartu ahal izateko, beharrezkoa izango da dinamika hau

jarraitzea:

1. Akitania-Berrian, Euskadin edo Nafarroan argazki bat ateratzea (ezinbesteko betebeharra da). Argazkiak ur-markarik, ertzik, logotiporik edo webgune helbiderik ez izatea, besteen artean.
2. Erakundearen webgunean helburu horrekin ezarritako inprimakia betez bidaltzea.
3. Datu pertsonalak eta kontakturako datuak betetzea eta Euroeskualdeari argazkia erabiltzeko baimena ematea.

Abenduaren 18an, Euroeskualdeak izendatutako eta arduradunek eta teknikariek osatutako epaimahai batek hautatuko ditu erakundeak argitaratutako 2026ko egutegian agertuko diren 12 argazki finalistak. Epaimahaiak kalitate tekniko eta artistikoaren eta hiru lurraldeetako ondare, kultura eta paisaia aberastasuna bisualki irudikatzeko gaitasunaren arabera hautatuko ditu argazkiak.

Behin hautaketa amaituta, bozketa fasea irekiko da sare sozialetan (Instagram, LinkedIn eta Facebook) eta erakundearen webgunean internautek gogoko duten argazkia hautatu ahal dezaten, eta fase hori 2026ko urtarrilaren 5ean itxiko da. Berdinketa kasuan, epaimahaiak erabakiko du bi argazki finalisten artean irabazlea.

NAEN Euroeskualdea bide elektronikotik jarriko da harremanetan irabazleekin.

04 | ARGAZKIEN ERABILERA

Partaidea irudien erabilera-eskubideak ematera konprometitzen da. Euroeskualdeak doan erabili ahalko ditu argazkiak bere jarduerekin zerikusia duen edozein jakinarazpenetan (sare sozialak, erakundearen argitalpenak, prentsa, webgunea, aurkezpenak edo azokak), denbora-mugarik gabe, eta ez da ordainketarik egongo horren truk. Hautatu ez diren argazkien fitxategiak suntsitu edo egileei itzuliko zaizkie, aurretik hala eskatuta.

05 | LEHIAKETAREN BALDINTZAK ETA SARIAK

Euroeskualdearen urteroko egutegian agertuko diren 12 argazki finalistak hautatuko dira. Gainera, horietako batek lehiaketako saria jasoko du inkestetan jasotako botoen arabera.

Sariak:

- Lehiaketako finalistak: Egutegiaren 5 ale

- Interneteko bozketako lehen saria: NAEN Euroeskualdeko produktu gastronomikoen saskia, 200 €-ko balioarekin.

Finalistak 2025eko abenduaren 18an iragarriko dira eta irabazlea 2026ko urtarrilaren 8an, sare sozialetan eta erakundearen webgunean.

06 | MUGAK

Partaideetako batek oinarrietan aipatutako betebeharrak betetzen ez dituela edo parte hartzeko eskainitako datuak onargarriak ez direla ikusiz gero, partaidetza baliogabetzat hartuko da eta automatikoki lehiaketaz kanpo geratuko dira, promozioan emandako sariekiko eskubide oro galduz.

Emandako sarian ezin izango dira aldaketarik edo konpentsaziorik egon partaideek hala eskatuta ere, eta ezingo da beste edozein produkturen edo diruaren truk aldatu.

NAEN Euroeskualdeak eskubidea erreserbatzen du, horretarako arrazoi justua badago eta aurretik jakinarazpen legala eginez, zozketa aldatzeko, bertan behera uzteko edo luzatzeko.

Irabazlearen kontura eta kargura izango dira saria onartzeak ekar liezaiokeen karga fiskal edo zerga-karga oro, bai eta lehiaketatik eratorritako beste edozein gastu ere, baldin eta lege-oinarri hauetan berariaz onartuta ez badago.

HAMABOST (15) egun naturaleko epea ezartzen da, saria ematen den egunetik hasita, edozein erreklamazio arrazoitu egiteko. Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak beretzat gordetzen du, nahitaez behar izanez gero, sariaren ordez antzeko ezaugarriak dituen beste bat emateko eskubidea.

07 | IRUZKINAK ETA IRITZIAK

Ez dira onartuko eduki ezegokia, iraingarria, laidogarria edo diskriminatzailea daukaten edo hirugarrenen eskubideak urra ditzaketen edukia duten iruzkin edo iritzirik. Era berean, ez dira onartuko pertsona baten ohorearekiko, intimitate pertsonal edo familiaren intimitatearekiko eta bere irudiarekiko eskubidearen printzipioak urratzen dituzten iruzkinak. Ez dugu onartzen ardurarik lehiaketako partaideek egindako eta une oro beste partaideen sentsibilitateak mindu ditzaketen iruzkinek eragindako kalteekiko.

08 | DATU PERTSONALEN BABESA

Datuen tratamenduaren arduraduna Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdea da,

helbide honekin: 18 Rue Lekueder, 64700 Hendaia, Frantzia. . Datuen babesaren arloan aplikatzekoa den araudian ezarritakoaren arabera, eta, zehazki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoan, xedatutakoaren arabera, parte-hartzaile bakoitzak, lege-oinarri hauek onartuta, baimena ematen du lehiaketa honetan parte hartzeko emandako datu pertsonalak Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen titulartasuneko fitxategi batean sartzeko, lehiaketan parte hartzeko izapideak egiteko eta, irabazlea izanez gero, sariaren berri emateko.

Jakinarazten dizugu zure harremanetarako datu pertsonalak honako helburu hauetarako erabiliko direla:

- Irabazleekin harremanetan jartzea.
- Irabazlearen izen, abizen eta bizilekua gure orrian argitaratzea eta sare sozialetan aipatzea (LinkedIn, Facebook eta Instagram).
- Erakundeko webgunean deskargatu ahalko den eta kideei banatuko zaien 2026ko egutegian finalisten izen eta bizilekua argitaratzea.

Informazio hori ez da komertzialki jakinaraziko ezta hirugarrenei transmitituko.

Parte-hartzaileek bermatzen dute emandako datu pertsonalak egiazkoak direla eta ardura hartzen dute Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeari datu horien edozein aldaketa jakinarazteko. Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak beretzat gordetzen du datu faltsuak eman dituzten parte-hartzaile guztiak sustapen honetatik kanpo uzteko eskubidea. Gomendatzen da Datuen Babesaren arloan ahalik eta arreta handiena izatea segurtasun-tresnak erabiliz, eta ezin zaio Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeari egotzi legez kanpoko datuak lapurtu, aldatu edo galtzearen erantzukizuna.

Parte-hartzaileek eskubidea dute (i) beren datu pertsonalak atzitzeko, bai eta (ii) datu okerrak zuzentzeko edo, hala badagokio, ezabatzeko eskatzeko, (iii) datuen tratamendua mugatzea eskatzeko, (iv) beren datuen tratamenduari aurka egiteko eta (v) datuen eramangarritasuna eskatzeko. Parte-hartzaileek eskubide horiek guztiak erabili ahal izango dituzte helbide elektroniko honetan: contact@euroregion-naen.eu, eskaeraren arrazoia.

Beste edozein administrazio-errekurtso edo ekintza judiziali kalterik egin gabe, parte-hartzaileak eskubidea izango du erreklamazio bat aurkezteko Kontrol Agintaritza baten aurrean, bereziki bere ohiko bizilekua, lantokia edo ustezko arau-haustearen lekua dagoen estatu kidean, baldin eta bere datu pertsonalen tratamendua araudiarekin bat ez datorrela uste badu, bai eta bere eskubideen erabilera ordaindu ez badu ere.

Erreklamazioa aurkeztu zaion kontrol-agintaritzak erreklamatzaileari jakinaraziko dizkio

erreklamazioaren nondik norakoak eta emaitzak.

09 | ALDAKETAK

Sustapen-oinarri horiek aldatzeko edo zabaltzeko eskubidea gordetzen dugu, lehiaketan parte hartzen dutenen eskubideak kaltetzen ez dituen neurrian.

10 | SARIEN BANAKETA

Sariak 15 eguneko epean banatuko dira posta bidez eta bidalketa Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen kargura izango da. 15 eguneko epe horretan irabazlea harremanetan jarri ez bada edo Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeari bere datu pertsonalak eman ez badizkio, erakundeak lehen ordezkoari saria esleitzeko eskubidea izango du, eta horrela hurrenez hurren.

11 | AUZIAK

Arau hauek Frantziako araudiaren arabera arautuko eta interpretatuko dira. Akordio honetako klausulak interpretatzearen edo aplikatzearen ondoriozko auziren bat gertatuz gero, alderdiak adiskidetasunez konpontzen ahaleginduko dira.

Adiskidetasunezko akordiorik ez badago, auzia lurralde-jurisdikzio eskudunaren mende jarriko da. Gaztelaniazko eta euskarazko bertsioak dokumentu frogagarritzat hartuko dira.